

## GIZA-GIZA (ANTROPOLOGIA)

Gure bizitzan norberaren nai-gabeen une batzuetan galderak sortzen dira. Oso pozgarriak dira batzuk. Alde batetik galdera oneik zintzilizka itzi ba nebazan be uste-kabekoa izan zalako, bestetik, poztasun aundiaz artzen dira galdera arduradunak direnean.

Zornotzako koralekoak garenok (S.A.C.Z.), egunero edo beintzat sarritan lagun taldea joaten gara alkar ikusteko eta karta-jokuan egiteko, abes-taldearen saioaren ordua elduarte, geienak abeslariak diralako.

Esango neuke alkartean gure-arteko arremanak onak dirala lotsagizunen aldetik, asieratik baimenezko legeak, guztiz demokrazian ondo ezarri ziralako.

Kartetako mus-joko betean egon giñela «URI-BIONDO`tar PABEN» agertu zan niri begira, eta esku-artean Euskerazaleak egiña eta BBK argitaratua dan tako-egutegiaren orrialde bate daukala niri itanduteko zeozer esan eban:

Paul! jakidezun idazten dauzuna nik irakurten dotela, GIZA-IZTIA zer esan gura dau?

Eta nik erantzun orduko berak esan ustan, orritxoan ipinten eban gaztelera izkuntzan itzulita «Antropologia?».

Nik buruagaz baietza emon neutson, baiña astirik ez eban emon, bereala abes-saioaren gelara joan zalako, Giza-izti itzarengandik daukan edesti labur bat asalduko dautzuet.

Orain urte bi dirala, Joxe Mari Latxaga eta ni, sarritan joaten giñan idaz-lan egitera, berak Lizarra`ko etxean daukan liburutegi ederraren laguntzagaz, eta an egon nintzan idazten “EUSKAL-ERRIAREN IZAERAN «RH» DALA TA..... “ idaz-lan au egutegian 2.003`an Urtarri-lla`ren 29`ko egunean agertzen da.

Antropologia`ko itza bear-bearrezko idaztea izan zan lez, Latxagari itandu neutson, ia zein izango zan itz onen itzulpena Euskaraz idazteko, eta berak batera itaundu ustan: «iztegi orrek zer esaten dau?. Nire erantzuna:» Antropologia besteri ez! eta nik uste dot Euskera elderdu egin orduko, danok beste itxura bategaz lan ta ikasi egin bear geunkela ez?, nai itz barria izan.

Latxagak esan eban: artu egik Mugika`ren iztegia gaztelera`ik Euskerara ia zer esaten dauan.... .

Ez dakar ezertxo be esan neutson.

Eta berak oster a be esan eban: artik Euskeratik-gaztelera itzultzen dauana eta begitik “IZTI” itzak zer esangura dauan.

Artu neban iztegia, eta “IZTI” itzarengana eldu nintzanean: “tratado, curso de, escrito, -logia, -nomia: “izar-izti, ortz-izti = astronomia“. Orregaitik, nire itzulpena gizartearen arloko bidetik bear zan lez “GIZA-IZTIA“ antropologiaren itzulpena.

Olazar`tar Martin `eri be itandu neutson eta bardin esan eban. Or ba nun dagoan akatza berba barrien itzulpenak aurkitzeko.

Baiña ni geien arduratzen nauena “bi-2.000-mila, ELKAR“ iztegi espainiera-Euskara, Euskara espainiera artuta, gaztelera eta Euskaraz itz bardiñak dirala. Oneik bai iztegi aundia egin eta denbora gutxian. “Iru-3.000-mila” iztegia artu neban eta onek be bardiña, ez eban ekarten. Alangoko erabagiak artu ez gero denbora elduko da Euskalerrian baten batek itandu egingo dauana, ia euskaldunik badagoan lur onetan.

Ni burdinezko lantegitik nator, eta badakit makiña batek, berak bear dauazan gauzakin tresnatuta joan bear dauala eta jatorrizko atalakin antolatuta; amarka-neurriko kiribil edo biurkin arra, Ingelesen beatzeko (pulgada) zorro (tuerca) baten sartu ezker “BABEL`eko DORREA “ bertan daukazu tresnamenduta, ezertarako balio ez dauan langaillua. Eta zori-onez gai onetan sortzen dan guztia lege bardiñakin gauza guztiak egin bear dirala, beste naikerizko legerik ez dagolako.

Gure Euskal-izkuntzaren gaztelua zeaztasunean antolatzen badogu, etsaiak ez dabe botako errez eta nik esango neuke, ez dabela botako. Baiña guk bideak zabaltzen badautsaguz, errez sartuko dira eta bota be bai, gure gazteak ikasiko daben izkuntza etzaiarena izango dalako.

Euskaldunak ez dogu aaztu bear sekula! “EUSKEREAK, EUSKAL ARIMAREN SINISMEN OSOA DAUKALA“

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003`an ZEZEILLA`ren 4`an



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI`KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU